

## 2024 – 2025 IKASTURTEKO MATRIKULA OFIZIALA

### Informazio-laburpena

#### Nor matrikula daiteke?

2023-2024 ikasturtean zehar ikasle ofizialak izan direnak eta pertsona berriak, salbu kurtso berean matrikulatuta egon daitezkeen urte guztiak agortuta dituztenak, 2024-2025 ikasturterako erregimen ofizialean onartzeko eta matrikulatzeko prozeduraren deialdia egiten duen Ebazpenaren 2. artikuluko baldintzak betetzen badituzte.

#### Noiz?

##### Irailaren 2tik 17ra arte.

Irailako deialdiaren azterketa egin behar badut, **irailaren 14tik aurrera** egingo dut matrikula-eskaera, emaitza argitaratu ondoren.

Ikastaro bateko deialdiak agortu baditut, salbuespenezko deialdia eskatu ahal izango dut, baldin eta salbuespenezko deialdiarekin ez bada gainditzen maila bakoitzeko ezarritako urte kopuruaren muga (lau urte Oinarrizko mailarako, sei urte Tarteko maila guztietarako eta hiru urte C1 maila Aurreraturako). Hau da, **ez dut beti salbuespenezko deialdia eskatzeko aukerarik izango**. Eskatu ahal izanez gero, **Eskolan** egingo dut eskaera irailaren 18tik urriaren 7ra arte.

Salbuespenezko deialdia eskatzeko, inprimaki bat bete behar dut eta idazkaritzan utzi. Zuzendaritza taldeak erabakiko du baimentzea ala ez.

Behin matrikula-eskaera egiteko epe ofiziala bukatuta, **epez kanpoko** eskaera egin dezaket irailaren 18tik urriaren 7ra arte. Eskaera hori ere on-line egin beharko dut eta egingo den bigarren esleipenean parte hartuko du, betiere plaza hutsik geratzen bada. Bigarren esleipenaren data ikusi: <https://www.euskadi.eus/heo/> → *Matrikula Ofiziala* → *Egutegia*

#### Non?

Elektronikoki egin behar dut, bide hau jarraituz: <https://ikasgunea.euskadi.eus/eu>

Ikasgunea erabili ahal izateko, derrigorrean erregistratuta egon beharko naiz plataforman. Hori egiteko erabiliko dut baliozko identifikatzaile bat, hauen artean:

- NAN – Nortasun Agiri Nazionala, edo
- AIZ – Atzerritar Identifikaziorako Zenbakia, edo
- HNA – Hezkuntza Nortasun Agiria (Ikaslearen Zenbakia)

Eta baliozko posta elektronikoa eta pasahitza (datu horiek behar izango ditut geroago plataformara sartu ahal izateko)

Orain arte pasaportearekin edo NAN eta AIZ ez den beste edozein identitate-dokumentua erabiliz matrikulatu banaiz, derrigorrean HNArekin (Ikaslearen Zenbakiarekin) erregistratu beharko naiz Ikasgunean. HNAa ez badaukat, eskolan eskatu beharko dut.

Matrikula aplikazioa Ikasgunearen barruan dago. Ikasgunean sartu ahal izateko, plataforman erregistratzeko emandako posta elektronikoarekin eta pasahitzarekin egingo dut.

### **Eta adingabea banaiz, nola egingo dut nire eskaera?**

Kasu horietan, tutorea izango da Ikasgunean erregistratuko dena, dagozkion gakoekin. Ikasgunean sartu eta eskaeren eta HEOen menua aukeratzean, koadro bat agertuko zaio tutoreari, bere izena eta bere ardurapeko adingabeen izena adierazita. **Une horretan, eskaera egin nahi dion adingabearen izena aukeratu behar du.**

### **Baina, ez dakit zein mailatan matrikulatu, zer egingo dut?**

Ez badakit zein mailatan egin matrikula, mailaketa probak egitea komeni zait. Horiek non kokatu lagunduko didate. Probak Eskolako web gunean edo <https://www.euskadi.eus/heo/> → *Mailaketa probak* tokian aurki ditzaket.

Probak egin eta zuzendu ondoren, lortutako puntuazioaren arabera, proba berean gomendio batzuk aurkituko ditut: maila beheagoko edo goragoko proba egin, edo zein mailatan egin behar dudana eskaera.

### **Eta ikasle ofiziala banaiz....**

Dagokidan kurtsoan emango dut izena, gainditutakoaren hurrengoan.

### **Aurkeztu behar dut dokumentaziorik Eskolan?**

- **Irailaren 17ra arte** aurkez ditzaket dokumentuaren fotokopia eta originala hurrengo egoeratan banago:
  - Familia ugariko egoera EAetik kanpo lortu badut, baita ere, **nahiz eta Erkidegokoak izan eta titulua dudala adierazi, aplikazioak agertzen badu dokumentazioa aurkeztu beharra dagoela.**
  - Desgaitasun-egoera alegatu badut.
  - Terrorismoaren biktima banaiz.
  - Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako edo unibertsitateko irakaslea izan nintzen 2023/24 ikasturtean, EAEko ikastetxe pribatu edo unibertsitate publiko edo pribatu batean.
  - EAEko kanpoko HEOetako ikasle ofiziala banaiz.
  - Hezkuntza-premia bereziak baditut eta eskabide orrian eskoletarako edo/eta azterketarako laguntza eskatu badut.
- **Ikasguneko eskaeran egiaztatu behar dut identifikazioari, baremazioari edo tasei buruzko dokumenturen bat aurkezteko eskatu didaten.**

## Nola jakingo dut onartua izan naizen?

Irailaren 20an onartuen eta ez onartuen behin-behineko egoera ikasgunean kontsultatuz:  
<https://ikasgunea.euskadi.eus/eu>

Eta irailaren 27an onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko egoera ikasgunean kontsultatuz:  
<https://ikasgunea.euskadi.eus/eu>.

## Eta onartua izan ondoren, zer egin behar dut?

Ordainketa egin behar dut irailaren 27tik 30era arte, hemen sartuz:  
<https://ikasgunea.euskadi.eus/eu>

Ordainketa honela egin ahal izango da:

- *on-line*: ordainketa norberaren ordenagailutik egingo da, kreditu-txartelaren bidez edo banka elektronikoko sistemaren bidez.
- *off-line*: norberaren ordenagailutik ordaintzeko errekerimendua inprimatu behar da, eta dokumentu horrekin finantza-entitate batera edo kutxazain automatikora jo ordainketa egiteko.

**Ordaintzetik salbuetsita dauden pertsonak, matrikula-kopurua ordaindu behar ez badute ere, aplikazioan amaitu beharko dute ordainketa-prozesua, onartuak izateko.**

## Eta plaza lortu ez badut?

Nire eskaera itxaron zerrendan geratzen da eta libre geratu diren plazen esleipenean sartuko da, urriaren 11n. Prozesu horren ostean, beste esleipen bat egongo da eskolan, aurrez aurrekoa.

**Oharra:** 2024/2025 ikasturteko Matrikula Ofizialaren informazio guztia 2013ko uztailaren 3ko Aginduan (EHAA 2013-07-22) eta 2024ko maiatzaren 21eko Ebazpenean, <https://www.euskadi.eus/heo/> web gunean argitaratua aurki daiteke.

**Matrikula prozesuari buruzko edozein zalantza baduzu, jo hizkuntza eskolara.**